

Txiki!tto

2017ko maiatza

168 zbk.

Etorkizuneko
idazleak





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa XXIII. Ipurterre 2017

...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXIII. Edizioa antolatu berri du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa, aurten, 1.000 ipuin eta gutun jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan fina egin duzue aurten ere, txalotzeko moduko lana.

Beraz, irabazleei zoriontzeez gainera, parte hartu duzuen guztiei gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatu, Eibarren badugu-eta harrobi ederra.

Urteroko moduan, aurten ere, maiatzeko Txikitto!ko alea ia osorik eskainiko diogu lehiaketari. Bertan dituzue aurtengo ipuin irabazleak. Zabaldu orriak eta gozatu!

IPURTERTERRE 2017

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



Nora eta Jon hondartzan

Behin batean Nora eta Jon izeneko lagun batzuk itsasora hurbildu ziren. Joni itsasoa asko gustatzen zitzaion eta Norak Joni teleskopio bat oparitzea erabaki zuen. Orduan teleskopioa hartu eta hondartzara joan ziren.

Hondartzan zeudela, teleskopioa hartu eta irla bat ikusi zuten. Irla horretara txalupa batean joan ziren eta iritsi zirenean harri batetik ortzadarra ateratzen zela ikusi zuten. Harria gainetik kendu eta altxor bat aurkitu zuten. Altxorra zabaldu eta kolorinetako txanponak ikusi zituzten.

Txanponak ikutzerakoan urrezkoak bihurtu ziren: baino ortzadarra, desagertzen joan zen, beraz txanponak han utzi zituzten ortzadarra ez desagertzeko.

Eta jendea triste dagoenean hara eramaten dute ortzadarra ikusteko eta irribarretxoren bat egiteko.



LH1

LH2

Irene Alonso Bravo
La Salle-Isasi ikastetxea

Klotilde kontenedorea

Kaixo, ni Klotilde kontenedorea naiz, ni Pili-pili herriko kontenedore bakarra naiz. Ni herriko kontenedore bakarra naizenez, jendeak beste mota bateko zakarra botatzen dit.

Lehen ez zidan kalterik egiten baina orain, alergiak eta granoak egiten dizkirate eta neure aurpegiak paella bat ematen du.

Pentsatu nuen horrela ezin nuela jarraitu, eta ideia bat okurritu zitzaidan.

Hauxe idaztea: HEMEN ERREFUXA BAKARRIK!

Eta ez zuenak errespetatzen, atea itxiko diodala. Pili-piliko alkatea konturatu zen horretaz eta beste lagun batzuk ekarri zituen beraien izenak hauek dira: Urdintxo, Horitxo, Marroitxo eta Berdetxo. Horrela ez nintzen kutsatzen eta gainera dibertitu egiten nintzen.



LH3

LH4

Elene Arrazola
J.A. Mogel ikastola





LH5

LH6

Uxue Baroja
San Andres ikastetxea

Zergatik egiten duzue hau?

Kaixo, ni Berto naiz, eta oraintxe kontatuko dudan istorioa nire bizitza da. Adi-adi egon zaitezte datu bat ere ez galtzeko.

Aurreko astean lasai-lasai belarra jaten ari nintzen eta bat-batean ni bezalako askorekin batera, toki ilun batera eraman gintuzten. Lurrean lasto asko zegoen eta kaka -plasta ederrak gainean, a ze nazka!

Gaua han pasa genuen, baina eguna argitu ahala, lehengo kantu batzuk entzun genituen eta gero a zer nolako sustoa!! Txupinazo batzuk entzun genituen. Ateak zabaldu eta korrika batean hasi ginen, pila bat jende zegoen korrika, nik ez nekien nora zihoan jendea baina nik beraien atzetik egin nuen. Zerbait oso larria gertatu behar zen hain ikaratuta eta hain bizkor korrika egiteko...

Nire ustez han korrika egitea asko esatea da, han ez zegoelako nola korrika egin, ez dakit zenbat jende zapaldu nuen eta gainera atzera joan nahi bagenuen ipurdiko bat ematen ziguten makil luze batzuekin. Ez dakizue zer den hori!

Halako batean toki erraldoi batera heldu ginen. Nik ez nuen toki hori atsegin, jende pila bat ari zen gu inguratzen. Oso jantzi arraroa zeraman tipo patek trapu gorri bat hartu eta nire laguna Nala zorabiatu zuen. Nolako jendea dagoen mundu honetan pentsatu nuen nik! Halako batean gizon potolo batek ezpata bat hartu eta nire semea akabatu zuen, ezin duzue imajinatu nola pasatu nuen nik une hori...

Eta bat-batean nire txanda heldu zen, ai ze bildurra! Berrito ere tipo arraro bera trapu gorri zikin horrekin, ni xaxatzen!! Hara joan nintzen ni nire indar guztiarekin tipo horren kontra, behin, birritan, hirutan... a ze nazka!!

Orduan konturatu nintzen ni ere hil zorian egon nintekeela, aiii amaa!! Aii ze ondo egongo nintzen ni orain nire behitxo politarekin eguzkia hartzen, belarra jaten...

Ez dozue pentsatzen San Ferminak oso gogorak izan behar direla zezen buruan jartzen zarenean!!???





DBH1

DBH2

Ane Treviño
Mogel Isasi DBHI

2025ean Eibarren Euskara izango da nagusi?

2025 maitea, izugarri gustatuko zitzaidan zortzi urte barru Euskara izatea eibartar guztion lehen hizkuntza. Euskara da aiton-amonek hitz egindako hizkuntza, euskara da lagunekin bizitako oroitzapen on guztien hizkuntza, eta garrantzitsuen: EUSKARA DA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA.

Euskara batua polita da, baina Eibarko Euskeria oraindik politagoa da; Lagunekin eta familixarekin gauzian erabiltzen dugun Euskeria eta oso tristia izango zan gure bizitzan lagundu digun hizkuntza galtzia. Imajinatzen duzue Euskal Herria Euskararik gabe? Nik uste dut oso desberdina izango zela gure bizitza Euskara gabe, beti erderaz hitz egiten. Izan ere, estatu mailan, bat gehiago izango ginela pentsatzen dut, Euskara dalako besteengan desberdintzen gaituena.

Behin betiko abestiak esaten duen bezala, Euskaraz nahi baldin badugu bizi, "etxean eta kalean, eskolan, lanean, borrokan eta bakean Euskara dakitenak erabiliz eta ez dakitenak ikasiz". Hori da klabea. Gaur egungo gazte askok erdera erabiltzen dute beraien artean, eta ez dut zergaitia ulertzen. Ez dut ulertzen erdera erabiltzea

hizkuntza politago bat dugun bitartean, euskaldunak biltzen gaituen hizkuntza. Nik euskara definitu beharko banu, honela esango nuke: Mundu osoko polit eta kuttunena den eta Euskaldunok hitz egiten dugun hizkuntza da. Ez andaluzek eta ez katalanek, Euskaldunok bakarrik hitz egiten duguna.

Nik zin egiten dizut 2025. urtea heldu arte ahal dudan guztia erabiliko dudala Euskara, posible dudan pertsona eta leku guztietan Euskaraz mintzatuko naizela. Uste dut Eibartarrok dugun ametsik handiena Euskaraz ahoz aho pasatzea dela, pertsona gehiagok erabiltzea eta horregaitik izugarri gustatuko zitzaidan ametsa egia bihurtzea.

Laster arte 2025! Ea nola joaten diren oraindik gure tartean dauden zortzi urteak!!





IPURTERTERRE 2017

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



DBH3

DBH4

Beñat Laskurain
Mogel Isasi DBHI



2025ean Eibarren Euskara izango da nagusi?

Orain dela bi aste, zu eta zure familia bisitatzera Debara joan nintzenean, Eibarren 2025. urtean, hau da, 8 urteren buruan, euskara ia galdua egongo dela baieztatu zenidan, grazia emango balizu bezala. Nahiz eta ni baieztapen horrekin ados ez egon, momentu hartan, isildu egin nintzen. Ez neukan sesioan aritzeko inongo gogorik, baina berriz ere etxera bueltatzean, gaiaren inguruan hausnartu ostean, zuri mezu hau helarazteko beharra sentitu nuen.

Argi dago zure herrian, euskararen erabilera Eibarren baino altuagoa dela, eta egunerokotasunean, ohitura handia dagoela euskaraz aritzeko, Gipuzkoako kostaldeko herri txiki gehienetan bezala (Zumaia, Mutriku, Getaria ...), baina momentu honetan hala delako, uste al duzu euskararen etorkizuna bermatuta daukuzuela?

Zoritxarrez, herri bakar bat ere ez dago galera honetatik salbu, eta zurea ere ez, Joseba.


Deskuidatzen garenerako, euskarak, gaur egun dauzkan harnas-gune txikiak ere galduko ditu horrela jarraituz gero. Horregatik, ezin gara deskuidatu.

Gaztelaniak hiltun bat galduz gero, ez da igartzen, milioika dauzkalako, baina ordea euskarak galtzen badu, ikaragarritzko mina jasaten du, hizkuntza bakoitzak, bere garrantzia daukalako.

Erraza da pentsatzea norberak euskaraz mintzatu beharrean erdarara jota, ez dela ezer gertatuko, besteek mantenduko dutela hizkuntza, eta norberak ez daukala garrantzirik, zeren azken batean... zer da pertsona bat?

Baina jarrera horrekin, ez goaz inora, ez da bakoitzaren ideiekin kontsekuentea, zeren, norberak ez badu maite duena zaintzen, nolatan zainduko dute besteek?

Modu honetan, gure kulturaren, gure iraganaren, eta azken batean gure herriaren zati den euskara galduko dugu. Konturatu gabe, pixkanaka, ahaztua izango da.





"Etorkizun bat non gure euskara aintzat hartuko dugun, eta denok euskaraz mintzatuko garen, gure arbasoen bideari jarraituz, transmisioa eten ez dadin"



Erosketak egitera joaten garenean, baserritarrek, erdaraz egingo digute; etxe azpiko betiko tabernako Txominek, erdaraz esango digu Errioxako ardoak zenbat balio duen; Untzagako eserlekuetan goiz eguzkitsuak igarotzen dituzten jubilatuek, erdaraz esango diete usoei beraiengana hurbiltzeko, ogia eman behar dietenean; ...eta kitto! Itxi egin behar dute irakurle faltagatik; Xabi apaizak, meza erdaraz eman beharko du; haur hezkuntzako andereñoek, erdaraz esango digute gabonetan gure Olentzeroren marrazkia egin behar dugula, edo deskuidatuz gero, Olentzero beharrean, "Papa Noelena".

Baina okerrena da gu ez garela aldaketaz ohartuko, inor ez dela oroituko urte batzuk lehenago herri honek bere hizkuntza zuela. Besterik gabe, ahaztua izango da, eta gure bilobek "gizarten" ikasiko dute euren aitona amonek euskara izeneko hizkuntza zoragarri bat zerabiltela.

Historia zirraragarriak bizi izan zituen hizkuntza bat, garai zailenetan ere aldeko pertsonak eduki zituen, eta zaletu hauek hizkuntza hau mantentzeko sutsu borrokatu zutela, baina hauen ondorengoek, beraien arbasoek euskararen alde egiteagatik sufritu zutena ahaztua edo, hizkuntza alde batera utzi zuten.

Baina nire ustez, Joseba, etorkizuna ez dago idatzita, eta nik goian deskribatu dizudanaren bide paraleloa har dezakegu, euskararekiko errespetua premiazko gai bezala edukiko duen etorkizun bat-

Etorkizun bat non gure euskara aintzat hartuko dugun, eta denok euskaraz mintzatuko garen, gure arbasoen bideari jarraituz, transmisioa eten ez dadin.

Errealitate hau gertatu daiteke, eta oraindik ez da berandu erabaki honen alde egiteko. Garai hauetan, jende asko dago bigarren bidearen alde, eta beraz, itxaropena daukat hau egia bihurtuko dugula.

Horregatik, ez dut uste 2025.urtean, Eibarren euskara ia galduko denik. Azken batean, erabakia, gure esku baitago.

Konbentzitu al zaitut? Espero dut baietz. Ea denon artean euskara berpizten dugun, zurea bezalako herri euskaldunetan gure %100 erabiltzera helduz, eta nirea bezalako ez hain euskaldunetan, euskalduntze prozesuan aurrerapausoak emanez, behingoz bada ere, gure arbasoak gugandik harro egon daitezten.

Maiatzaren 17an banatu genituen aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak, Unibertsitate Laboralean. Zelako pozik jaso zituzten euren sariak irabazleek eta zelako gogoarekin animatu zieten ikaskideek!

Gainera, aurten berriz ere jaso dugu Txoborro magoaren bisita eta ume zein helduak aho zabalik utzi zituen bere trikimailuekin.

Aurtengo irabazleak hauetxek izan dira:

LH-1-2: Irene Alonso (La Salle)

LH 3-4: Elene Arrazola (J.A. Ikastola)

LH 5-6: Uxue Baroja (San Andres)

DBH 1-2: Ane Treviño (Mogel Isasi)

DBH 3-4: Beñat Laskurain (Mogel Isasi)


IPURTERRE



E sari banaketa

Ipui





BOTOI-GERRIKOA

Botoi solteak pilatu eta gerriko eder egiteko aukera eskaintzen dizuegu. Udako estilo berria jantzi zuek egindako osagaiekin!

MATERIALA

- ✓ 40 egurrezko botoi.
- ✓ Soka bat

(Botoi kopurua eta sokaren luzera pertsona bakoitzaren arabera izango da. Onena da lehenik eta behin zure gerria neurtzea zenbat botoi eta soka beharko duzun kalkulatzeko)




PAUSOAK

- 1.- Soka botoiaren bi zuloetatik sartu eta lokarria lotu.
- 2.- Soka botoi guztietatik sartu eta lokarria lotu azken botoitik lokarria sartu ostean. Egon ziur bere tokian geldituko dela. Egokiena da lokarria bi botoien inguruan lotzea.

Ti-ta!

HARRI-DOMINOA

Harriekin eskulana egiteko aukera koloretsu eta dibertigarria daukazue. Horretarako, harriak batu eta behar dituzunak aukeratu, gure kasuan 25. Harriak margotu, ertz bakoitza kolore batekin. Harriak sikatzen utzi eta, lehortzen direnean, dominoan jokatzeke prest egongo dira!





OGI-ROLLITOAK

Ummmm... Ze merienda gozoak egingo dituzuen datozen asteotan... Jarraitu pausoak eta kontatuko didazue. Guk osagai hauek erabili ditugu baina badakizue, irudimena erabiliz zuek nahi duzuen bezala egin ditzakezue rollitoak.

OSAGIAK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ Moldeko 8 ogi-xerra
- ✓ Arrautza 1
- ✓ Esne pixkat
- ✓ Azukre txuria
- ✓ Kanela birrindua
- ✓ Gazta-krema (Philadelphia bezalako)
- ✓ Marrubiak
- ✓ Txokolate-krema
- ✓ Oliba-olioa



PAUSOAK

- 1.- Zabaldu ogi-xerrak, eta ertzak baldin baditu kendu. Xerra batzuen izkinan gazta-krema eta marrubiak jarri eta besteetan, berriz, txokolate-krema pixkat eta marrubiak.
- 2.- Biribildu ogi-xerrak eta busti esnetan lehenengo eta arrautzan ondoren. Azukre eta kanela pixkat bota eta errebozatu itzazue.

ARROZANBURGESA




Arroza soberan gelditu bazaigu, ideia ona izan daiteke hanburgesak egitea. Zortzi bat hanburgesa egiteko honakoa beharko dugu: bi kikara arroz-egosi, bi arrautza, ogi kikara bat, eta azenarioa/tipula/apioa nahasketa bat. Eskuak busti eta ondo nahastu osagai guztiak. Hanburgesa forma eman eta labean edo zartaginean berotu. Nahasketa oso likidoa gelditu bada, ogi birrindua gehitu. Oso lehorra gelditu bada, berriz, ura gehitu.

PATENTERO

Hilabete honetan Filipinetan Pantentero izenarekin ezagutzen den jolasa ekarri dizuegu. Euskaraz, *armiarma-jolasa* izenarekin ezagutzen dugu eta gaztelaniaz *arañita*.

4 pertsonak hartzen dute parte. Bat marra gainean kokatzen da, eta bera izango da harrapatzailea. Besteak, marraren alde batean kokatzen dira. Helburua beste aldera pasatzea da. Bitartean, harrapatzailea, bere lagunak harrapatzen ahalegindu beharko da, baina marra gainetik soilik mugitu daiteke.

Inguruan galdetuz gero ziur asko munduko beste txoko batzuetan ere jolastuko dela esango dizue, nahiz eta izen desberdin batekin ezagutu.



ARIES

Ikasketak: Hori bai txukun lan egitea.
Maitasuna: Lasai, zure sekretua gordeko dut...
Asteko eguna: Domeka.

TAURUS

Ikasketak: Utzi opor kontuak eta lanera.
Maitasuna: Umm... uste duzuna baino gertuago duzu..
Asteko eguna: Astelehena.

GEMINIS

Ikasketak: Ahalegintzen ari zara eta igerri egiten da. Oso ondo!
Maitasuna: Bai, ez, bai, ez, bai, ez, bai. Aupa!
Asteko eguna: Zapatua.

CANCER

Ikasketak: Pixkanaka-pixkanaka urrutirago iritsiko zara.
Maitasuna: Oraingoan ziur baietz.
Asteko eguna: Eguena.

LEO

Ikasketak: Lasai, ez da horrenbesterako eta.
Maitasuna: Ai zein polita den!
Asteko eguna: Barixakua.

VIRGO

Ikasketak: Primeran amaituko duzu ikasturtea.
Maitasuna: Musuak emateko eta jasotzeko dira.
Asteko eguna: Eguena.

LIBRA

Ikasketak: Aste batzuk falta dira amaitzeko, animo!
Maitasuna: Beste bat aukeratzea komeni zaizu.
Asteko eguna: Zapatua.

SCORPIUS

Ikasketak: Eta eskolako lanak, zer?
Maitasuna: Ondo zaindu laguna, txo!
Asteko eguna: Domeka.

SAGITARIUS

Ikasketak: Animo! Udarako gutxi falta da!
Maitasuna: Ez al duzu oraindik ikaskide berri horrekin berba egin?
Asteko eguna: Barixakua.

CAPRICORNIUS

Ikasketak: Irakaslea irakasteko dago, galdetu hari.
Maitasuna: Aupa, esaiatzen zeozer!
Asteko eguna: Martitzena.

ACUARIUS

Ikasketak: Ziur aurten dena ongi amaitzen duzula!
Jarraitu lanean.
Maitasuna: Agian, zure zain dago.
Asteko eguna: Astelehena.

PISCIS

Ikasketak: Eguneko denbora antola ezazu: etxekolanak, jolasak....
Maitasuna: Noiz esan duzu bere izena?
Asteko eguna: Zapatua.



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu.

Zozketa egin eta gero, irabazlea **JON**

CAPELASTEGUI izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Bi liburu dibertigarri erman ditu JONEk etxera.



7 desberdintasunak



BIDALI ERANTZUNAK EKAINAK 2 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena


AdinaTel.....



New York-eko “Enoteca Maria” izeneko jatetxean amona italiar batzuk dute sukaldearen ardura.



Sorbeltz arruntak 10 hilabete pasa ditzake hegan gelditu gabe. Arrautzak jarri, inkubatu eta txitak hazteko besterik ez da gelditzen.




Bird Millman XX. mendeko Estatu Batuetako akrobata ezaguna izan zen. Soka baten gainean ibiltzen zen 90 metroko altueran, inolako segurtasun-tresna eta sarerik gabe!



Shibuyako (Japonia) tren-geltokiaren aurrean Hachiko txakurraren omenezko estatua bat dago. Hachiko leiala 9 urtetan egunero egon zen hildako jabearen zain.



Italiako Caldari herrian iturriak ura eman beharrean ardoa ematen du! Bisitariak doan proba dezakete.



Ba al zenekiten munduan jan daitezkeen 1.900 intsektu-espezie daudela? Besteak beste, kilkerrak, txindurriak, txitxarrak, tarantulak...



Wadi Al-Sallam izenekoa da munduko hilerririk handiena. 6 km² ditu eta 5 milioi hildako hartzen ditu!



Lo gehien egiten duten animalien artean daude armadilo erraldoiak (18 ordu egunean), koalak (15 ordu), lpar Amerikako azkonarra eta kaiman muturzabala (14 ordu).



Frantziako Landak erregioa oso lur zingiratsua izan zen XIX. mendera arte, eta bertako bizilagunak trikimako edo zanko luze batzuk erabiltzen zituzten alde batetik bestera mugitzeko.



Bizirik dauden arbolarik zaharrenak Pinu adintsuak dira. Estatu Batuetan bizi dira eta zaharrenak 5.000 urte inguru izango ditu!



Itsaso Barean “Zaborraren Irla” izeneko gune bat dago, hondakin plastiko flotatzailez osatua dago eta 700.000 m²-ko neurria duela kalkulatu da.




Peruk dauka patata-motarik gehien: 4.000 patata-mota ezberdin hazten dira bertan!



Arkatz bati 17 aldiz atera diezaiokegu punta, 47 mila hitz idatz daitezke eta 56 kilometroko marra marraztu.



Erleek argi ultramorea ikus dezakete. Horri esker nektar gehien zein lorek duten jakin dezakete.



Lur planetak 6 mila milioi tona pisatzen du. Ideia bat egiteko, elefante batek 5 tona pisatzen du; pentsa ze astuna den mundua!




JAZZ NAIZ (6 urtetik aurrera)

Bi urteko ume txikia zenetik, Jazz-ek bazekien neska zela, jaiotzean mutiltzat hartu bazuten ere eta mutilen arropa soinean ez zebilen eroso. Horren aurrean, familiak ez zekien nola jokatu, Jazz transexuala zela ulertu eta laguntzea erabaki zuten arte.



TXOKOLATEZKO PASTELA (8 urtetik aurrera)

Xiberrentzat astelehenak asteko egunik kutunenak dira, gozoenak. Izan ere, egun horretan jantokian txokolatezko pastela hartzen baitute. Josunek berak prestatzen du, eskolako sukaldari handikoteak. Bat-batean, ordea, Xiberren eskolako lagunak gaixotzen hasten dira.




UDA BAT SENEGALEN (10 urtetik aurrera)

Garazik eta Izarok ustekabe galanta hartuko dute, aitak esaten dienean uda osoa Senegalen pasatuko dutela, aita erizainak bertako ospitale batean laguntzen duen bitartean. Hasieran dena da berria: jendea, giroa, etxeak, usainak... Lagunak egiteak ere ez dirudi erraza bi neskentzat, bertako hizkuntza ezagutu gabe.



MISTERIO ERRALDOIA (6 urtetik aurrera)

Mirenek arazo bat du, arropa guztia bustita dago eta biharko behar du. Baina zortea du, izan ere, bere auzokideek lagundu egingo diote, zalantzarik gabe; horretarako, eraikin osoa solidarioz josi dute, eta bertan dabilta, eskaileak gora eta behera. Kontakizunean, ez dakigu zergatik, baina protagonistak asko sufritzen du arropa hori guztia prest izateko.




MUNSTRO TXIKIAK: HAGINTXOREN TRIPAKO MINA (8 urtetik aurrera)

Hagintxo, Mamutxo, Sorgintxo, Frankitxo eta Neskaotso Munstro Txikiak txangoan doaz, mamuak bizi diren gaztelu bat bisitatzera. Dorreak, sotoak eta ziegak ikusi ostean, ordea, gaixotu egingo da Hagintxo, tripako min gogor batek jota. Haren lagunak ez dakite zer egin, nola sendatu, nora jo...



BETAURREKOAK HOZKAILUAN (10 urtetik aurrera)

Egunkarietan agertzen den pertsonaia famatua ez izan arren, Mararentzat aita da munduko pertsonarik miresgarriena. Hain da berezia eta hain daki gauza asko. Elkarte misteriotsu bateko ohorezko kide ere bada, gainera. Baina, zoritxarrez, munduko gizonik despistatuena ere bada, eta edonon galtzen ditu bere leopardo pastadun betaurreko kutunak: kalean, postontzietan...



zu margolari!